

ATZERRIKO LEHEN HIZKUNTZA

Egungo gizartearen bilakaera azkarra eta gizartearen arteko lotura anitzak direla eta, garatu beharko diren kompetentziak lagungarriak izango dira gero eta globalagoa, kulturartekoagoa eta eleaniztunagoa den errealitate garaikidearekiko konprometituta dagoen herritartasun independentea eta aktiboa praktikan jartzeko. Kultura demokratikorako kompetentzien erreferentzia-esparruak adierazten duenez, kultura askotarikoak diren egungo gizarteetan, prozesu demokratikoei kulturen arteko elkarrizketa behar dute. Beraz, hizkuntza desberdinetako komunikazioa funtsezkoa da kultura demokratiko hori garatzeko. Hezkuntzaren Europako Esparru baten ideian, hizkuntza batean baino gehiagotan komunikatzeari esker, mugek ez dute hezkuntza eta prestakuntza oztokatzen, eta, aldi berean, nazioartekotzea eta mugikortasuna bultzatzen dira, beste kultura batzuk ezagutzeko aukera emateaz gain. Horrek ikasleen ikuspegiak zabaltzen ditu. Horrenbestez, gure hezkuntza-sistemak elebitasuna ziurtatzeko erronkari, atzerriko hizkuntza batean, gutxienez, komunikatzeko gai izango diren pertsona eleaniztunak lortzearen helburua gehitu behar diogu.

Atzerriko Hizkuntza jakintzagaiak oinarrizko hezkuntza bukatzean ikasleen Irteera Profila osatu behar duten funtsezko kompetentziak eskuratzen laguntzen du; gainera, zuzenean parte hartzen du kompetentzia eleaniztunaren lorpenean, hau da, zenbait hizkuntza modu egokian eta eraginkorrean erabiltzeko kompetentzian, ikaskuntzarako zein komunikaziorako. Kompetentzia eleaniztunak, komunikazio-dimentsioa barnean hartzeaz gain, barne hartzen ditu ikasleek hizkuntza, belaunaldi, arte eta kulturaren arloko aniztasuna ezagutu, baloratu eta errespetatzera daramaten alderdi historikoak eta kulturartekoak, eta, horretarako, kulturarteko eta belaunaldien arteko elkarrizketa sustatzen du, iraunkortasuna eta demokrazia sustatzeko bitarteko gisa. Era berean, ikasleei aukera ematen die ingurune digitaletan hobeto moldatzeko eta atzerriko hizkuntzaren bidez bideratutako kulturetara iristeko, bai prestakuntza eta ikaskuntza-motor gisa, bai informazio- eta gozamen-iturri gisa. Jakintzagai honetan, ikaskuntza elementu garrantzitsuak dira, halaber, pentsamendu kritikoaren eta sormenezkoaren garapena, informazio-alfabetatzea eta informazio- eta komunikazio-teknologiaren erabilera egokia, segurua, etikoa eta arduratsua. Horrenbestez, jakintzagai hau hizkuntza-kompetentziarako eta kompetentzia eleaniztunerako lagungarria izateaz gain, ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren amaieran funtsezkoak diren kompetentziak gara eta lor ditzaten laguntzen du.

Jakintzagai honek aukera ematen die ikasleei atzerriko hizkuntzan eraginkortasunez eta modu egokian komunikatzeko eta beren hizkuntza-errepertorio indibiduala zabaltzeko. Hartara, haien esperientziak aprobetxatu ahal izango dituzte hobeto komunikatzeko haien familia-hizkuntzetan, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza koofizialetan eta atzerriko hizkuntzetan. Hizkuntza-jakintzagaien komunikazio-izatea instrumentala kontuan izanik, agerikoa da hizkuntza-jakintzagaiak gainerako jakintzagaiak egiten dieten ekarpena. Izatez, hizkuntzen ikaskuntzaren oinarrizko xedea da etapa bakoitzeko berezko komunikazio-egoerarako egokiak diren askotariko testuak modu koherentean, kohesionatuan eta egokian ulertzeko eta sortzeko gaitasuna garatzea, bizitzan zehar ikasteko oinarriak testuinguru formaletan, informaletan eta ez-formaletan finkatu daitezkeen. Hizkuntza erabiltzen ikastea, halaber, arazoak aztertzen eta ebazten ikastea da, baita planak egiten eta erabaki-prozesuei ekiten ikastea eta komunikazio-egoera bakoitzean egokiak diren estrategiak erabiltzen ikastea ere. Ikasleek, edukiak batera, jakintzagai bakoitzaren adierazpen moduak ikasi behar dituztenez gero, behar-beharrezkoa izango da edukia eta hizkuntza integratzea. Ildo horretan, diziplinarteko lana —ikas-egoeren bidez planteatua— ezinbestekoa da ikasleek jakintzagai bakoitzaren diskurtso-generoak bereganatu ditzaten. Era berean, jakintzagai guztiek laguntzen dute ahozko eta idatzizko produkzio- eta hartze-prozesuen hobekuntzan, baita produkzio- eta hartze-prozesu multimodalaren hobekuntzan ere.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Atzerriko Hizkuntza jakintzagaiaren kompetentzia espezifikoaren bidez, aurrera egiten da Lehen Hezkuntzan eskuratutako kompetentzietan. Lehen Hezkuntzako kompetentzia

horiek izango dira etapa berri honetarako abiapuntua, eta ikasleen errepertorioetatik eta esperientzietatik abiatuta garatuko dira. Hori dela eta, ulermen, produkzio, interakzioa eta bitartekotzako komunikazio-jarduerak eta -estrategiak zabaldu eta sakonduko dira. Etapa honetan, bitartekotza ulertzen da kontzeptuak azaltzera eta mezuak sinplifikatzera bideratutako jarduera gisa, betiere elkar ulertzea errazteko eta informazio transmititzeko xedez. Progresioak berarekin dakar, halaber, eginkizun handiagoa ematea honako alderdi hauei buruzko gogoetari: hizkuntzen funtzionamendua, erabilera egokiak eta desegokiak eta ikasleen errepertorio indibidualetako hizkuntzen arteko erlazioak. Jakintzagai honetako konpetentzia espezifikoaren barruan sartzen dira hizkuntza-, arte- eta kulturaaniztasuna baloratzea eta egokitzea, betiere ikasleek kulturarteko komunikazio-egoeretan modu enpatikoan eta asertiboan eta errespetuz jokatzeko ikas dezaten.

Jakintzagaiaren ebaluazio-irizpideek zehazten dute ikasleek erdietsitako konpetentzia espezifikoaren lorpen-maila; beraz, horiekin lotuta aurkezten dira. Konpetentzien formulazioan, ebaluazio-irizpideak planteatzen dira ikasleek lortu beharreko prozesua edo gaitasuna adieraziz eta prozesu edo gaitasun hori aplikatzeko eta erabiltzeko testuingurua edo modua adieraziz. Ebaluazio-irizpideen nibelazioa Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan (HEEEB) oinarritzen da, baina Bigarren Hezkuntzako ikasleen heldutasunera eta garapen psikoebolutibora egokituta.

Oinarritzko jakintzek jakintzagaiko konpetentzia espezifikoak eskuratzeko behar diren ezagutzak (jakitea), trebetasunak (egiten jakitea) eta jarrerak (izaten jakitea) batzen dituzte, eta irizpideen bidez ikaskuntzak ebaluatzea errazten dute. Hiru multzotan egituratzen dira. *Komunikazioa* multzoan biltzen dira ulermen, produkzio, interakzioa eta bitartekotzako komunikazio-jarduerak garatzeko abian jarri behar diren jakintzak —informazio-iturrien bilaketarekin eta kontsultatutako iturrien kudeaketarekin lotutakoak barne—. *Eleaniztasuna* multzoak hizkuntzen funtzionamenduari buruz gogoeta egiteko gaitasunarekin lotzen diren jakintzak biltzen ditu, atzerriko hizkuntza ikasten eta ikaslearen hizkuntza-errepertorioa hobetzen laguntzeko. Azkenik, *Kulturartekotasuna* multzoan atzerriko hizkuntzaren bidez bideratzen diren kulturei buruzko jakintzak biltzen dira, eta aberasteko eta gainerakoekin harremanetan jartzeko aukera gisa baloratzen da. Multzo horretan sartzen dira, halaber, beste hizkuntza, hizkuntza-barrietate eta kultura batzuko ulertzeko eta balioesteko interes-jarrerak garatzera bideratutako jakintzak.

Europako Kontseiluak Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan ezartzen dituen jardueretatik eta konpetenzietatik abiatuta planteatu dira curriculumeko elementuen ikuspegia, nibelazioa eta definizioa.

Jakintzagaiak ikaskuntza dinamiko eta jarraitua, malgua eta irekia bultzatzen du, ikaslearen inguruabarrerara, errepertorioetara, beharretara, emozioetara eta interesetara egokitu behar dena, genero-ikuspegia kontuan hartuta. Espero da zenbait esparrutako berezko komunikazio-egoeretan oinarritzko jakintza guztiak aktibatuzko gai izatea, haren esperientzietatik hurbil dauden eguneroko gaiei buruzko testuetan edo garrantzi pertsonaleko gaiei edo interes publikoko gaiei buruzko testuetan oinarrituta —testu horiek Garapen Iraunkorreko Helburuekin eta XXI. mendeko erronkekin zerikusia duten alderdiak jasotzen dituzte—. Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuak planteatzen duen ekintzara bideratutako ikuspegiaren ildotik —metodologia eklektikoak erabiltzea sustatzen du—, curriculum honen konpetentziak atzerriko hizkuntzaren ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluazioa indartuko dituzten tresna digitalak erabiltzera eta hizkuntzen tratamendu integratua aintzat hartuko duten eta testuinguruan kokatuko diren diziplinarteko zeregin adierazgarriak eta garrantzitsuak sortzera irakasleak gonbidatzen ditu. Ikasleak gero eta autonomoagoa izango den eta beren ikaskuntza-prozesuan gero eta ardura handiagoa duen eragile sozialtzat hartuko dira. Etaparen amaieran, komenigarria litzateke Europako programen esparruan nazioz haraindiko kolaborazio-proiektuak barne hartzea, parte-hartze aktibo eta erreala eta aurreiritzirik gabekoa izango duen europar herritartasun demokratikoaren erakuntza errazte aldera.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Erabili ohi diren diskurtso-generoetako testuak, hizkuntza estandarrean eta garbi adierazitakoak, ulertzea eta interpretatzea, iturri fidagarriak bilatuz eta zenbait estrategia erabiliz, hala nola esanahien inferentzia, betiere zentzu orokorra eta ideia nagusiak ateratzeko eta komunikazio-egoera zehatzetan horien edukia baloratzeko.

Ulermenak informazioa jasotzea eta prozesatzea esan nahi du. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren etapan, ulermena komunikazio-trebetasun bat da, eta argi eta hizkuntza estandarra erabiliz adierazitako ahozko eta idatzizko testuetatik eta testu multimodaletatik abiatuta garatu behar da. Garrantzi pertsonaleko edo ikasleen esperientziatik hurbil dauden interes publikoko eguneroko gaiak jorratuko dira, baita Garapen Iraunkorreko Helburuekin zerikusia duten gaiak ere.

Maila honetan, ulermenak berarekin dakar testuak ulertu eta interpretatzea, eta haien zentzu orokorra eta xehetasunik garrantzitsuenak ateratzea, testuen komunikazio-beharrak asetze aldera. Horretarako, garapen psikoebolutiborako eta ikasleen premietarako egokienak diren estrategiak aktibatu behar dira, testuaren esanahiaren eta zentzuaren errepresentazioa berreraikitze eta testu horien azpian dagoen komunikazio-asmoari buruzko hipotesiak formulatzeko. Ikasleentzat erabilgarrienak diren ulermen-estrategien artean daude esanahiak inferitzea eta komunikazio-testuinguru berrietara estrapolatzea eta ikasleen hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzen ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak transferitzea eta integratzea. Formatu multimodalean, ulermenak errepresentazio-forma desberdinen interpretazioa barne hartzen du (idazketa, irudia, grafikoak, taulak, diagramak, soinua, keinuak, eta abar), baita testuinguru-informazioarena (hizkuntzaz kanpoko elementuak) eta informazio kotestualarena (hizkuntza-elementuak) ere. Horiek guztiek testuaren asmoari eta zentzuari buruzko hasierako hipotesia egiaztatzeko aukera ematen dute eta, beharrezkoa izanez gero, hipotesi alternatiboak planteatzeko aukera ematen dute.

Estrategia horiez gain, ulermenerako oso metodo erabilgarria da iturri fidagarrien bilaketa, analisi kritikoa eta aukeraketa —euskarri analogikoetan zein digitaletan—, aukera ematen baitu informazioa kontrastatzeko, baliozkotzeko eta sostengatzeko, eta testuetatik abiatuta ondorio garrantzitsuak lortzeko. Ulermeneta interpretazio-prozesuek komunikazio-testuinguru dialogikoak behar dituzte, zehazki kolaborazioa, orotariko aurreiritzien eta estereotipoen identifikazio kritikoa eta desberdintasun eta antzekotasun etniko-kulturalekiko benetako interesa sustatuko duten testuinguruak.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, KD1, KPSII5, KAKK2.

2. Erabili ohi diren diskurtso-generoetako testu originalak sortzea, hedapen ertainekoak, errazak eta antolaketa argikoak, planifikazioa, konpentsazioa edo autokonponketa gisako estrategiak erabiliz, betiere mezu garrantzitsuak sormenez, egokitasunez eta koherentziaz adierazteko eta komunikazio-helburu zehatzei erantzuteko.

Produktzioak barnean hartzen ditu ahozko adierazpena zein idatzizkoa eta multimodala. Etapa honetan, produktzioak berarekin ekarri behar du garrantzi pertsonaleko edo ikasleen esperientziatik hurbil dauden interes publikoko eguneroko gaiei buruzko testuak sormenez, koherentziaz, egokitasunez eta hizkuntzaren erabilera diskriminatzailerik gabe idaztea eta azaltzea, baita Eskola Agenda 2030ek sustatzen dituen Garapen Iraunkorreko Helburuei lotutako gaiak ere. Etapa honek zenbait formatu eta euskarritako produktzioak barne har ditzake: deskribapen edo pasadizo txiki baten azalpena, hedapen handiagoko aurkezpen formala, argudio simple bat, edo egitateak, kontzeptuak, pentsamenduak, iritziak eta sentimenduak tresna digital eta analogikoen bidez adierazten dituzten testuak idaztea. Produktzioak berarekin dakar, halaber, Interneten informazio aurreratua bilatzea, dokumentazio-iturri gisa. Formatu multimodalean, berriz, produktzioak barne hartzen du esanahia sortzeko zenbait baliabide batera erabiltzea (idazketa, irudia, grafikoak, taulak eta diagramak, soinua, keinuak, eta abar) eta zereginaren eta beharren arabera egokiena hautatu eta aplikatzea.

Testugintzarekin lotutako jarduerak funtzio garrantzitsuak betetzen dituzte esparru pertsonalean, sozialean, hezkuntzakoan eta profesionalean, eta balio sozial eta zibiko zehatza lotzen da horiekin. Euskarri horietako produktiorik formalenen arloko trebetasuna ez da berez eskuratzen, izan ere, ikaskuntzaren emaitza da. Etapa honetan, produkzioak oinarriko alderdi formalen ikaskuntzan (alderdi linguistikoagoak, soziolinguistikoagoak eta pragmatikoagoak), erabilitako generoarekin lotutako ohiko itxaropen eta konbentzioen ikaskuntzan, produkzio-tresnen ikaskuntzan eta erabilitako euskarriaren ikaskuntzan oinarritzen dira. Produkzioa (formala nahiz informala) hobetzeko estrategien artean daude plangintza, autoebaluazioa eta koebaluazioa, atzeraelikadura, monitorizazioa, baliozkotzea eta konpentsazioa.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, KE1, KE2, STEM4, KD2, KPSII5, EK1, EK3, KAKK3.

3. Beste pertsona batzuekin gero eta autonomia handiagoz elkarreraginean aritzea, kooperazio-estrategiak erabiliz, baliabide analogikoak eta digitalak baliatuz eta adeitasun-arauak errespetatuz, komunikazio-helburu zehatzei erantzuteko.

Interakzioak bi parte-hartzaile edo gehiago inplikatzeko baten eraikuntza. Pertsonen arteko interakzioa jotzen da hizkuntzaren sorburutzat, eta funtzio interpersonalak, kooperatiboak eta transakzionalak barne hartzen ditu. Interakzioan sartuta daude hizkuntza-adeitasuna, etiketa digitala eta komunikazioaren hitzezko eta hitzik gabeko elementuak, baita ingurune sinkronoetako eta asinkronoetako —plataforma digitalek ematen dituztenen modukoak— erregistro eta genero dialogikoetarako egokitzapena ere —ahozkoetarako, idatzizkoetarako edo multimodaletarako—. Hezkuntzaren etapa honetan, ikasleek beren ekintzak, presentzia eta ikusgarritasuna modu arduratsuan kudeatzea espero da, eta interakzioek eguneroko gaiak modu kritikoan eta sormenez jorratzea —garrantzi pertsonaleko gaiak izan edo ikasleen esperientziatik hurbil dauden interes publikoko gaiak izan—, eta, horretarako, eduki sexistaren erabilera identifikatzea eta baztertzea.

Konpetentzia espezifiko hau funtsezkoa da ikaskuntzan, honako estrategia hauek barne hartzen baititu: hizkuntzen arteko transferentziak; kooperazio-estrategiak; elkarrizketa hasi, eutsi edo amaitzekoak; hitz egiteko txandak lagatzekoak eta hartzekoak; eta argitzea edo errepikatzea eskatzekoak. Gainera, hizkuntza-kortesia eta etiketa digitala gidatzen dituzten arauak eta printzipioak ikasi eta aplikatzearekin, ikaslea prestatuko da herritartasun demokratikoa, arduratsua, errespetuzkoa, segurua eta aktiboa burutzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE1, KE2, KD3, KPSII3, HK3, KAKK3.

4. Hizkuntza desberdinen arteko edo hizkuntza beraren modalitate eta erregistroen arteko bitartekotza egitea eguneroko egoeretan, kontzeptuak azaltzera edo mezuak sinplifikatzera bideratutako estrategia eta ezagutza errazak erabiliz, informazioa modu eraginkor, argi eta arduratsuan transmititzeko.

Bitartekotza hizkuntzaren jardura bat da eta honetan datza: mezuak edo testuak ahoz edo idatziz azaltzea eta errazago ulertaraztea zenbait strategiaren bidez, hala nola, birformulazioaren bidez. Bitartekotzan, ikasleek gizarte-eragile gisa jardun behar dute, eta beren ardura izango da zubiak sortzea eta mezuak modu dialogikoan eraikitzea, hizkuntza desberdinen artean ezezik, hizkuntza beraren modalitate edo erregistroen artean ere.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, bitartekotza hiru alderditan, oinarritzen da batik bat,. Batetik, hizkuntzak komunikazio-testuingurutik sortzen diren erronkak ebazteko tresna gisa duen rolean, komunikaziorako eta ikaskuntzarako espazio eta baldintza egokiak sortzen dituen heinean. Bestetik, bitartekotzak berekin dakar kooperazioa eta gainerakoek parte har dezaten sustatzea, esanahi berriak eraikitzeke eta ulertzeko. Azkenik, bitartekotzan aritzeak informazio berria behar bezala, arduraz eta modu eraikitzailean transmititzea dakar, betiere hizkuntzaren erabilera diskriminatzailea saihestuz. Horretarako, baliabide konbentzionalak eta aplikazio edo plataforma birtualak erabil daitezke edukiak

itzuli, aztertu, interpretatu eta partekatzeko. Etapa honetan, mezuak edo testuak eguneroko gaiei buruzkoak izango dira, garrantzi pertsonalekoak edo ikasleen esperientziatik hurbil dauden interes publikokoak.

Bitartekotzak ikasleen pentsamendu estrategikoa garatzen laguntzen du; izatez, komunikazio eraginkorra lortze aldera, ikasleek beren erreperitorioko trebetasun eta estrategiarik egokienak aukeratzea dakar. Gainera, informazioa trukatzeko den ingurune kooperatiboetan norberaren eta beste pertsona batzuen parte-hartzea errazten du. Era berean, eskura dauden baliabideak aitortzea eta besteen motibazioa eta enpatia sustatzea eskatzen du, eta, horrekin, solaskideen motibazioak, ideiak eta egoera pertsonalak ulertzea eta errespetatzea eta norberarekin harmonizatzea. Horregatik, espero da ikasleek enpatia, errespetua, espiritu kritikoa, sormenezko pentsamendua eta zentzu etikoa azaltzea, maila horretako bitartekotza zuzenerako funtsezko elementua den heinean.

Kompetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE1, KE2, KE3, STEM4, KPSII1, KPSII3, KAKK1.

5. Norberaren hizkuntza-erreperitorioa mobilizatzea eta erabiltzea, erreperitorio hori osatzen duten hizkuntzetako bakoitzaren funtzionamenduari buruzko gogoeta kritikoa eginez eta norberaren estrategiez eta ezagutzeaz jabetuz, betiere atzerriko hizkuntza ikasteko gaitasuna eta komunikazio-behar zehatzetarako erantzuna hobetzeko.

Hizkuntza-erreperitorioaren erabilera eta haren funtzionamenduari buruzko gogoeta lotuta daude hizkuntzak eskuratzeko ikuspegi eleaniztunarekin. Ikuspegi eleaniztunaren abiapuntua da ikasleek dakizkiten hizkuntzekin dituzten esperientziak oinarri baliagarriak direla hizkuntza berrien ikaskuntza zabaltzeko eta hobetzeko, eta esperientzia horiek lagungarriak zaizkiela beren hizkuntza-erreperitorio eleanitza garatzeko eta aberasteko, baita jakin-min eta sentsibilizazio kulturala zabaltzeko ere. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasleek hizkuntzei buruzko gogoeta horretan sakontzen dute eta beren erreperitorio indibidualetako hizkuntzen arteko harremanak ezartzen dituzte; hizkuntza horien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak aztertzen dituzte, erreperitorioa osatzen duten hizkuntzetako ezagutzak eta estrategiak zabal dituzten. Horrela, hizkuntza berriak ikastea errazten da eta komunikaziorako kompetentzia hobetzen da. Hizkuntzei eta horien funtzionamenduari buruzko gogoetak berekin dakar ikasleek haien arteko erlazioak ulertzea, eta, horrez gain, hizkuntzaren eta komunikazioaren arloan dituzten indarguneak eta gabeziak identifikatzen laguntzea, norberaren ezagutzeaz eta estrategiez jabetuta eta horiek esplizitu eginda. Ildo horretatik, berekin dakar, orobat, ziurgabetasunari aurre egiteko trebetasunak eta ekimena-ren zentzua eta pertseberantzia garatzeko trebetasunak abian jartzea, helburuak lortu edo erabakiak hartze aldera.

Gainera, hizkuntza bat baino gehiago ezagutzeak aukera ematen du gizartearen hizkuntza-aniztasuna aberastan-alderdi positibotzat hartzeko. Norberaren hizkuntza-erreperitorioan eduki berriak eraikitze-ko eta integratzeko gailu eta tresna analogikoak zein digitalak hautatu, konfiguratu eta aplikatzeak erraztu dezake beste hizkuntza batzuk ikastea eta hobetzea.

Kompetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KE2, KD2, KPSII1, KPSII5.

6. Atzerriko hizkuntzatik abiatuta, hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna modu kritikoan baloratzea eta aniztasun horretara egokitzea, hizkuntzen eta kulturen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatuz eta partekatuz, betiere kulturarteko egoeretan enpatiaz, asertibotasunez eta errespetuz jokatzeko.

Kulturartekotasunak gizartearen hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna esperimentatzea eskatzen du eta, horretarako, aniztasun hori aztertzea eta baliatzea. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, arreta berezia merezi du kulturartekotasunak, gainerakoekiko ulermena bultzatzen duen heinean. Izan ere, kulturartekotasunak ikasleen esperientziaren parte izan behar du, eta aniztasun horri buruzko pertzepzioak ez du estereotipoek desitxuratuta egon behar eta ez du diskriminazio mota jakin batzuen jatorri izan behar. Balorazio kritikoak eta aniztasunarekiko egokitasunak ikasleei aukera eman behar diete enpatiaz, asertibotasunez eta errespetuz jokatzeko kulturarteko egoeretan.

Aniztasunaren kontzientziak kultura desberdinak erlazionatzeko bidea ematen die ikasleei. Gainera, sentsibilitate artistiko eta kulturalaren garapena errazten du, baita beste kultura batzuetako pertsonekin harremanak ezartzeko estrategia ugari identifikatzeko eta erabiltzeko gaitasuna ere. Etapa honetan atzerriko hizkuntzaren irakaskuntzan —adibidez, Europako programen esparruan— planteatu daitezkeen kulturarteko egoerei esker, ikasleak esperientzia, ideia, gizarte eta kultura berrietara ireki daitezke, eta desberdinekiko interesa erakuts dezakete; era berean, norberaren ikuspegia eta kultura-balioen sistema bera erlatibiza dezakete eta edonolako diskriminazioetan edo estereotipoen errefortzuan oinarritutako jarreretatik urrundu daitezke eta jarrera horiek saihestu ditzakete. Hori guztia bideratzen da iraunkortasunaren aldeko kultura partekatua eta herritartasun konprometitua garatzeko helburura, tokiko mailan nahiz maila globalean, baita balio demokratikoak garatzeko helburura ere.

Kompetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE3, KPSII1, KPSII3, HK3, KAKK1.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Lehen eta bigarren mailak	Hirugarren eta laugarren mailak
Etapa honetako lehen bi mailetan, hizkuntza-mailan landu beharreko testuek garrantzi pertsonaleko gaiei eta esperientziatik hurbil dauden ohiko eta eguneroko gaiei buruzkoak izan behar dute, pertsonen arteko harremanen, ikaskuntzaren, hedabideen eta fikzioaren arloetakoak.	Etapa honetako hirugarren eta laugarren mailetan, hizkuntza-mailan landu beharreko testuek garrantzi pertsonaleko gaiei eta esperientziatik hurbil dauden eguneroko gaiei buruzkoak izan behar dute, pertsonen arteko harremanen, hedabide sozialen eta ikaskuntzaren arloetakoak, baita ikasleen heldutasun-mailaren arabera literatura-testu egokien arloetakoak.
1. kompetentzia espezifikoa	
1.1. Zenbait euskarritan, argi eta hizkuntza estandarrean adierazitako ahozko testu eta testu idatzi eta multimodalak labur eta errazten zentzu orokorra eta informazio espezifikoa eta esplizitua interpretatzea eta aztertzea, laguntza bisualarekin edo testuinguruko laguntzarekin eta berriro entzuteko edo berrespena eskatzeko aukerarekin.	1.1. Zenbait euskarritan, argi eta hizkuntza estandarrean adierazitako luzera ertaineko ahozko testuen eta testu idatzi eta multimodalak zentzu orokorra eta ideia nagusiak ateratzea eta informazio egokia aukeratzea, berriro entzuteko edo berrespena eskatzeko aukerarekin.
1.2. Komunikazio-egoerarako egokienak diren estrategiak eta ezagutzak gidatuta hautatzea, antolatzea eta aplikatzea, testuen zentzu orokorra, funtsezko informazioa eta xehetasunik garrantzitsuenak ulertzeko, eta hitzezkoak ez diren elementuak interpretatzeko.	1.2. Gero eta konplexuagoak diren testuen edukia eta diskurtso-ezaugarriak interpretatzea eta baloratzea.
1.3. Informazioa bilatu, hautatu eta kontrastatzeko eta modu egokian eta seguruan gordetzeko eta berreskuratzeko oinarritzko estrategiak erabiltzea, baliozkotasun, kalitate, gaurkotasan eta fidagarritasuneko irizpideak aplikatuz.	1.3. Komunikazio-egoerarako egokienak diren estrategiak eta ezagutzak hautatzea, antolatzea eta aplikatzea, testuen zentzu orokorra, funtsezko informazioa eta xehetasunik garrantzitsuenak ulertzeko, esanahiak inferitzeko eta hitzezkoak ez diren elementuak interpretatzeko.
	1.4. Informazioa bilatu, hautatu eta kontrastatzeko eta informazio hori jabetza intelektuala arautzen duten egiletza-lizentzien arabera kudeatzeko erabili ohi diren estrategiak erabiltzea, baliozkotasun, kalitate, gaurkotasan eta fidagarritasuneko irizpideak aplikatuz.
2. kompetentzia espezifikoa	
2.1. Komunikazio-egoerarako egokiak diren testu laburrak, errazak, egituratuak eta ulergarriak ahoz adieraztea behar besteko zuzentasunez, arintasunez, ahoskeraz eta intonazioz, zenbait euskarritan deskribatzeko, kontatzeko eta informatzeko, betiere hitzezko baliabideak eta hitzezkoak ez direnak modu gidatuan erabiliz eta hizkuntzaren erabilera eraginkorra eta etikoa eginez.	2.1. Komunikazio-egoerarako egokiak diren testu errazak, egituratuak, ulergarriak eta koherenteak ahoz adieraztea behar besteko zuzentasunez, jariakortasunez, ahoskeraz eta intonazioz, zenbait euskarritan deskribatzeko, kontatzeko, argudiatzeko eta informatzeko, betiere hitzezko baliabideak eta hitzezkoak ez direnak erabiliz eta hizkuntzaren erabilera eraginkorra eta etikoa eginez.

Lehen eta bigarren mailak	Hirugarren eta laugarren mailak
2.2. Testu labur eta errazak, ulergarriak, egitura argikoak eta erabili ohi den lexikoa dutenak antolatzea eta idaztea, koherentziaz, kohesioz eta proposatutako komunikazio-egoerara egokituz, ezarritako jarraibideei modu indibidualean edo kolektiboan jarraituz, tresna analogiko eta digitalen bidez.	2.2. Luzera ertaineko eta lexiko eta egitura aberatseko testuak antolatzea, idaztea eta hedatzea, argitasun, koherentzia, kohesio, zuzentasun eta sormen onargarriez eta proposatutako komunikazio-egoerara, testu tipologiara eta erabili ohi diren tresna analogiko eta digitaletara egokituz.
2.3. Testuak berrikusteko eta testuen prestaketan kooperatzeko oinarrizko ezagutzak eta estrategiak modu gidatuan hautatzea, antolatzea eta aplikatzea, zereginaren arabera eta testuaren hartzaile izan daitezkeen solaskideen premien araberrako baliabide analogiko edo digital egokienak laguntzarekin erabiliz.	2.3. Testuak planifikatzeko, produzitzeko, berrikusteko eta testuen prestaketan kooperatzeko erabili ohi diren ezagutzak eta estrategiak hautatzea, antolatzea eta aplikatzea, zereginaren eta beharren arabera egokienak diren baliabide analogikoak edo digitalak erabiliz, herritartasun digital zibiko eta gogoetsua burutuz, jabetza intelektuala errespetatuz eta plagioa saihestuz.
3. kompetentzia espezifikoak	
3.1. Egoera interaktibo sinkronoak edo asinkronoak laburrak eta errazak planifikatzea eta horietan parte hartzea, errepikapena, erritmo lasaia edo hitzik gabeko hizkuntza gisako baliabideetan oinarrituta, eta hizkuntza-kortesiaren eta netiketaren aldeko enpatia eta errespetua erakutsiz, baita solaskideen behar, ideia, kezka, ekimen eta motibazioen aldeko enpatia eta errespetua ere, hizkuntzaren erabilera diskriminatzaile eta estereotipo oro baztertuz.	3.1. Egoera interaktibo sinkronoak edo asinkronoak planifikatzea eta horietan parte hartzea eta kolaboratzea zenbait euskarriren bidez, ekimena, jarrera kritikoa, sormena, enpatia eta hizkuntza-kortesiaren eta netiketaren aldeko errespetua erakutsiz, baita solaskideen behar, ideia, kezka, ekimen eta motibazioen aldeko enpatia eta errespetua ere, hizkuntzaren erabilera diskriminatzaile eta estereotipo oro baztertuz.
3.2. Komunikazioa hasi, mantendu eta amaitzeko, hitza hartu eta uzteko eta argibideak eta azalpenak eskatu eta emateko oinarrizko estrategia egokiak gidatuta eta ingurune hurbiletan hautatzea, antolatzea eta erabiltzea.	3.2. Komunikazioa hasi, mantendu eta amaitzeko, hitza hartu eta uzteko, argibideak eta azalpenak eskatu eta emateko, birformulatu, alderatu, kontrastatu, laburtu, kolaboratu, eztabaidatu, arazoak ebatsi, eta egoera konprometituak kudeatzeko erabili ohi diren estrategia egokiak hautatzea, antolatzea eta erabiltzea, ingurune analogiko eta digitalean.
3.3. Plangintza- eta kudeaketa-estrategiak hautatzea eta aplikatzea, baita estrategia kooperatibo errazak eta konplexuak ere, talde-lanean esleitutako erantzukizun indibidualak bere gain hartuz eta sortzen diren gatazkak kudeatuz.	3.3. Plangintza- eta kudeaketa-estrategiak hautatzea eta aplikatzea, baita estrategia kooperatibo errazak eta konplexuak ere, talde-lanean esleitutako erantzukizun indibidualak bere gain hartuz eta ingurune analogikoetan eta digitaletan sortzen diren gatazkak kudeatuz.
4. kompetentzia espezifikoak	
4.1. Testu, kontzeptu eta komunikazio labur eta errazak inferitzea eta azaltzea, aniztasunari erantzun behar zaion eguneroko egoeraerretan, solaskideekiko eta erabilitako hizkuntzekiko errespetua eta enpatia erakutsiz, ingurune hurbilean elkar ulertzeko eta aditzeko arazoan konponketan parte hartzeko interesa erakutsiz, eta zenbait baliabide eta euskarri baliatuz.	4.1. Testu, kontzeptu eta komunikazio gero eta luze eta konplexuagoak inferitzea eta azaltzea, aniztasunari erantzun behar zaion eguneroko egoeretan, solaskideekiko eta erabilitako hizkuntzekiko errespetua eta enpatia erakutsiz, ingurune hurbilean elkar ulertzeko eta aditzeko arazoan konponketan parte hartuz, eta zenbait baliabide eta euskarri baliatuz.
4.2. Lagunduta, zubiak sortzen eta komunikazioa errazten lagunduko duten eta informazioa ulertzeko eta sortzeko balioko duten oinarrizko estrategiak, komunikazio-asmoetara egokituak, aplikatzea, baliabide eta laguntza analogikoak edo digitalak erabiliz, unean uneko beharren arabera.	4.2. Zubiak sortzen laguntzen duten, komunikazioa errazten duten eta testuak, kontzeptuak eta mezuak azaltzeko eta sinplifikatzeko balioko duten estrategiak aplikatzea, komunikazio-asmoetara, testuinguruarenezaugarrietara eta testu tipologiara egokituak, baliabide eta laguntza analogikoak edo digitalak erabiliz, unean uneko beharren arabera.
5. kompetentzia espezifikoak	
5.1. Zenbait hizkuntza alderatzea eta haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak kontrastatzea, haien funtzionamenduari buruz gidatuta gogoeta eginez.	5.1. Zenbait hizkuntza alderatzea eta haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak argudiatzea, haien funtzionamenduari buruz gero eta autonomia handiagoz gogoeta eginez.
5.2. Atzerriko hizkuntzan eraginkortasunez komunikatzeko eta berori ikasteko gaitasuna hobetzeko ezagutzak eta estrategiak erabiltzea eta bereiztea, beste parte-hartzaile batzuen eta euskarri analogikoen eta digitalen laguntzaz.	5.2. Atzerriko hizkuntza ikasteko eta gero eta hitz-jario, egokitzapen eta zuzentasun maila handiagoz komunikatzeko gaitasuna hobetuko duten estrategiak eta ezagutzak sormenez erabiltzea, beste parte-hartzaile batzuen eta euskarri analogikoen eta digitalen laguntzaz.

2023ko uztailaren 31, astelehena

Lehen eta bigarren mailak	Hirugarren eta laugarren mailak
5.3. Atzerriko hizkuntza ikasteko aurrerapenak eta zailtasunak identifikatzea eta erregistratzea, zailtasun horiek gainditzeko estrategiarik eraginkorrenak gidatuta hautatuz eta autoebaluaziorako eta koebaluaziorako oinarriko estrategiak eta tresnak erabiliz, hala nola Hizkuntzen Europako Portfolioan (PEL) edo ikaskuntza eguneroko batean proposatutakoak, aurrerapenak zehaztuz eta partekatuz.	5.3. Atzerriko hizkuntza ikasteko aurrerapenak eta zailtasunak erregistratzea eta aztertzea, zailtasun horiek gainditzeko estrategiarik eraginkorrenak hautatuz eta ikaskuntzaren planifikaziorako, autoebaluaziorako eta koebaluaziorako erabili ohi diren estrategiak eta tresnak erabiliz, hala nola Hizkuntzen Europako Portfolioan (PEL) edo ikaskuntza eguneroko batean proposatutakoak, aurrerapen horiek zehaztuz eta partekatuz.
6. kompetentzia espezifikoak	
6.1. Enpatiaz eta errespetuz jokatzeko kultura arteko egoeretan —hala nola eTwinning plataformak emandakoetan—, hizkuntza eta kulturen arteko loturak eraikiz eta eguneroko komunikazio-testuinguruetan edonolako diskriminazio, aurreiritzi eta estereotipoak baztertuz.	6.1. Egoki, enpatiaz eta errespetuz jokatzeko kultura arteko egoeretan —hala nola eTwinning plataformak edo Erasmus+ programak emandakoetan—, hizkuntza eta kulturen arteko loturak eraikiz, eguneroko komunikazio-testuinguruetan edonolako diskriminazio, aurreiritzi eta estereotipoak baztertuz, eta komunikazioa eragozten duten faktore soziokulturaletarako irtenbideak proposatuz.
6.2. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako berezko hizkuntza-, gizarte-, kultura- eta arte-aniztasuna onartzea eta aniztasun horretara egokitzea, norbera aberasteko eta gozatzeko iturri gisa aitortuz eta iraunkortasuna eta demokrazia sustatzen dituzten kultura- eta hizkuntza-elementuak partekatzeko interesa erakutsiz.	6.2. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeek berezkoa duten aniztasun linguistikoa, soziokulturala eta artistikoa atseginerako eta aberastasun pertsonalerako iturri gisa kritikoki baloratzea eta horretara egokitzea, kultura partekatua eta iraunkortasunarekin, giza eskubideekin eta balio demokratikoekin konprometitutako herritartasuna garatzen lagunduz.
6.3. Hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna azaltzeko eta aintzat hartzeko oinarriko estrategiak gidatuta aplikatzea, balio ekosozialak eta demokratikoak kontuan hartuz eta justizia-, ekitate- eta berdintasun-printzipioak errespetatuz.	6.3. Hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna defendatzeko eta aintzat hartzeko erabili ohi diren estrategiak aplikatzea, balio ekosozialak eta demokratikoak kontuan hartuz eta justizia-, ekitate- eta berdintasun-printzipioak errespetatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Lehen eta bigarren mailak
A. Komunikazioa
Ahozko testu laburren eta testu idatzi eta multimodal laburren edo luzera ertainekoen ulermena, produkzioa eta koprodukzioa planifikatu, gauzatu, kontrolatu eta konpontzeko oinarriko estrategiak.*
Eguneroko egoera errazetan bitartekotza-jarduerak detektatu eta horietan kolaboratu ahal izateko oinarriko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak.*
Komunikazio-esparrura eta -testuingurura egokitutako oinarriko komunikazio-funtzioak: agurtzea, agur esatea, aurkeztea eta nork bere burua aurkeztea; pertsonak, objektuak eta lekuak deskribatzea; gertaerak denboran kokatzea; objektuak, pertsonak eta lekuak espazioan kokatzea; eguneroko gaien buruzko informazioa eskatu eta trukitzea; jarraibideak eta aginduak eman eta eskatzea; laguntza, proposamenak edo iradokizunak eskaini, onartu eta errefusatzeko; gustua edo interesa eta oinarriko emozioak modu partzialean adieraztea; iraganeko gertaerak kontatzea, unean uneko egoerak deskribatzea, etorkizuneko egoerak adieraztea; iritzia, aukera, ahalmena, obligazioa eta debekua adieraztea.*
Garrantzi pertsonala duten eta esperientziatik hurbil dauden eguneroko ohiko gaien buruzko ahozko testu, testu idatzi eta testu multimodal labur eta errazak ulertzeko, produzitzeko eta koproduzitzeko oinarriko testuinguru-ereduak eta diskurtso-generoak, pertsonen arteko harremanen, ikaskuntzaren, hedabideen eta fikzioaren esparruei dagozkienak: testuinguruaren ezaugarriak eta ezagutza (parte-hartzaileak eta egoera), testuinguruak sortutako itxaropenak; generoaren, testuaren funtzioaren eta egituraren araberrako antolaketa eta egituraketa.*
Oinarriko hizkuntza-unitateak eta hauei lotutako esanahiak, hala nola erakundearen adierazpena eta haren propietateak, existentzia, kopurua eta kalitatea, espazioa eta espazio-erlazioak, modua, denbora eta denbora-erlazioak, aspektua eta modalitatea, konparazioa, baldintza (lehen hurbilketa), baieztapena, ukazioa, galdera eta harridura, oinarriko erlazio logikoak: lokailuak, deiktikoak, sinonimoak...*

2023ko uztailaren 31, astelehena

Lehen eta bigarren mailak
Ikasleek erabili ohi duten eta beren interesekoa den lexikoa, alderdi hauei buruzkoa: norberaren identifikazioa; pertsonen arteko harremanak; hurbileko toki eta inguruneak; aisia eta aisialdia; eguneroko bizitza; osasuna eta jarduera fisikoa; etxebizitza eta etxea; klima eta ingurune naturala; informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.*
Oinarrizko soinu-, azentu-, erritmo- eta intonazio-patroiak, eta patroiei lotutako esanahiak eta komunikazio-asmo orokorrak.*
Oinarrizko konbentzio ortografikoak eta formatu, patroiei eta elementu grafikoiei lotutako esanahiak eta komunikazio-asmoak.*
Oinarrizko konbentzioak eta elkarrizketa-estrategiak, formatu sinkronoan edo asinkronoan, komunikazioa hasi, mantendu eta amaitzeko, hitza hartu eta lagatzeko, argibideak eta azalpenak eskatu eta emateko, berriro formulatu, alderatu eta kontrastatzeko, laburtzeko, kolaborazioan aritzeko, eztabaidatzeko eta abar.*
Informazioa bilatu, hautatu eta kudeatzeko oinarrizko estrategiak eta baliabide analigiko eta digitalak.*
Egilea identifikatzeko estrategiak eta kontsultatutako iturrien eta erabilitako edukien baliagarritasuna, kalitatea, gaurkotasuna eta fidagarritasuna ebaluatzeko estrategiak.*
Ulermen, produkzio eta koproduktzioarako —ahozkoa, idatzizkoa eta multimodala— oinarrizko tresna analogikoak eta digitalak; eta hezkuntzaren arloko interakzio, kooperazio eta kolaborazioko plataforma birtualak (ikasgela birtualak, bideokonferentziak, kolaborazioko tresna digitalak...), atzerriko hizkuntzako hitzuneekin edo ikasleekin modu seguruagoan ikasteko, komunikatzeko eta proiektuak garatzeko.*
B. Eleaniztasuna eta ikaskuntzari buruzko gogoeta.
Autokonfiantza. Akatsa, hobetzeko tresna eta konpontzeko proposamen gisa.*
Oinarrizko komunikazio-behar jakin bati modu ulergarrian eta eraginkortasunez erantzuteko estrategiak eta teknikak, atzerriko hizkuntzako eta norberaren hizkuntza-errepertorioko gainerako hizkuntzetako konpetentzia-mailaren ondoriozko mugen gainetik.*
Hizkuntza-unitateak (lexikoa, morfosintaxia, soinu-patroiak, eta abar) identifikatu, antolatu, atxiki, berreskuratu eta sormenez erabiltzeko oinarrizko estrategiak, norberaren hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzak eta barietateak alderatzen abiatuta.*
Ikasteko baliabideak eta hizkuntza-unitateak (lexikoa, morfosintaxia, soinu-patroiak, eta abar) identifikatu, antolatu, atxiki, berreskuratu eta sormenez erabiltzeko oinarrizko estrategiak, norberaren hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzak eta barietateak alderatzen abiatuta.*
Autoebaluazio eta koebaluazioko oinarrizko estrategia eta tresna analogikoak eta digitalak, indibidualak eta kooperatiboak, baita atzerriko hizkuntza ikasteko aurrerapenak eta zailtasunak erregistratzekoak ere. Hizkuntzen Portfolio Europarra (HPE).*
Komunikazioari, hizkuntzari, ikaskuntzari eta komunikazio- eta ikaskuntza-tresnei (metahizkuntzari) buruzko enuntziatuak ulertzeko erabili ohi diren lexikoa eta esamoldeak.*
Hizkuntzen arteko konparaziorako oinarrizko estrategiak, atzerriko hizkuntzaren eta beste hizkuntza batzuen elementuetatik abiatuta: jatorria eta ahaidetasunak.*
Estrategia kooperatibo errazak eta konplexuak, eta talde-lanean esleitutako banako erantzukizunak norberegantzeko estrategiak. Gatazken kudeaketa.*
C. Kulturartekotasuna.
Atzerriko hizkuntza, pertsonen arteko eta nazioarteko komunikazio-bide, informazio-iturri eta norberaren aberastasunerako tresna gisa.*
Atzerriko hizkuntzako hitzuneekin edo ikasleekin, zenbait bitarteko bidez, komunikazio-trukeak egiteko interesa eta ekimena, betiere ahoskera, erritmo eta intonazio egokiez, oinarrizko ortografia-konbentzioak errespetatuz eta testuen aurkezpena zainduz.
Atzerriko hizkuntzaren berezko oinarrizko kultura-patroiak.*
Eguneroko bizitzari, bizi-baldintzei eta pertsonen arteko harremanei buruzko oinarrizko alderdi soziokulturalak eta soziolinguistikoak, generoaren analisitik; oinarrizko gizarte-konbentzioak; hitzik gabeko hizkuntza, hizkuntza-kortesia eta etiketa digitala; atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako berezko lurralde-banaketa, kultura, ohiturak eta balioak.*
Hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna ulertzeko eta estimatzeko oinarrizko estrategiak, balio ekosozialak eta demokratiakoak kontuan hartuta.*
Hitzezko eta hitzik gabeko hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak hautemateko eta horien aurrean jarduteko oinarrizko estrategiak.*

2023ko uztailaren 31, astelehena

Lehen eta bigarren mailak
Literatura-testuaren eta irakurketa balorazioa, gozamen-iturri gisa, adierazpen artistiko eta kulturaletara hurbiltzeko eta hizkuntza eta norbera aberasteko.
Literatura-testuak dramatizatzeke, birsortzeke eta erreztatzeke estrategia errazak.
Atzerriko hizkuntza munduan eta Euskal Herrian, eta honek euskararen duen eragina.
Hizkuntzen egoera Europan. Hizkuntza ofizialak, ez-ofizialak, nagusiak eta mendearen daudenak. Ereku Urriko Hizkuntzen Europako Karta.
Euskal diasporak atzerriko hizkuntzaren eta euskararen arteko kontaktuan sortutako hizkuntza-erregistro berriak.

Hirugarren eta laugarren mailak
A. Komunikazioa
Gero eta luzeagoak diren eta lexiko eta egitura aberatsagoak dituzten ahozko testuak, testu idatziak eta testu multimodalak planifikatu, gauzatu, kontrolatu eta konpontzeko erabili ohi diren estrategiak.*
Eguneroko egoeretan bitartekotza-jarduerak egitea ahalbidetzen duten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak.*
Komunikazio-esparrura eta -testuingurura egokitutako erabili ohi diren komunikazio-funtzioak: agurtzea eta agur esatea, aurkeztea eta nor bere burua aurkeztea; pertsonak, objektuak, lekuak, fenomenoak eta gertaerak deskribatzea; gertaerak denboran kokatzea; objektuak, pertsonak eta lekuak espazioan kokatzea; eguneroko gaien buruzko informazioa eskatu eta trukitzea; jarraibideak, aholkuak eta aginduak ematea eta eskatzea; laguntza, proposamenak edo iradokizunak eskaini, onartu eta ukatzea; gustua edo interesa eta emozioak modu partzialan adieraztea; iraganeko gertaerak kontatzea, gaur egungo egoerak deskribatzea eta etorkizuneko gertaerak enuntziatzea; iritzia, aukera, gaitasuna, obligazioa eta debekua adieraztea; argudio errazak adieraztea; hipotesiak eta suposizioak egitea; ziurgabetasuna eta zalantza adieraztea; birformulatzea eta laburtzea.*
Garrantzi pertsonala duten eta esperientziatik hurbil dauden interes publikoko eguneroko gaien buruzko ahozko testu eta testu idatzi eta multimodalak laburrak eta errazak ulertu, produzitu eta koproduzitzeko erabili ohi diren testuinguru-ereduak eta diskurtso-generoak, gero eta luzeagoak eta lexikoan eta egituretan aberatsagoak izango direnak eta pertsonen arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren esparruei dagozkienak, baita ikasleen heldutasun-mailarako egokiak diren literatura-testuak ere: testuinguruaren ezaugarriak eta ezagutza (parte-hartzaileak eta egoera); testuinguruak sortutako itxaropenak; generoaren, testuaren funtzioaren eta egituraren araberrako antolaketa eta egituraketa.*
Hizkuntza-unitateak, hala nola erakundearen adierazpena eta haren propietateak, kopurua, gradazioa eta kalitatea, existentzia, espazioa eta espazio-erlazioak, denbora eta denbora-erlazioak, modua, konparazioa, emaitza, baldintza, zeharkako estiloa, aspektu puntuala; iraupeneko; ohikoa; hasiera ematekoa; amaiera ematekoa eta modalitatea: faktikotasuna, ahalmena, aukera/probabilitatea, beharra, obligazioa, baimena, asmoa eta modalitatea, baieztapena, ukazioa, galdera eta harridura, ohiko erlazio logikoak: lokailuak, deiktikoak eta sinonimoak.*
Ikasleek erabili ohi duten eta beren interesekoa den lexikoa, alderdi hauei buruzkoa: norberaren identifikazioa; pertsonen arteko harremanak; toki eta inguruneak; aisia eta aisialdia; eguneroko bizitza; osasuna eta jardura fisikoa; etxebizitza eta etxea; klima eta ingurune naturala; informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, eskola-sistema eta prestakuntza.*
Erabili ohi diren soinu-, azentu-, erritmo- eta intonazio-patroiak, eta patroik horien lotutako esanahiak eta komunikazio-asmo orokorrak.*
Erabili ohi diren konbentzio ortografikoak eta formatu, patroik eta elementu grafikoen lotutako esanahiak eta komunikazio-asmoak.*
Erabili ohi diren konbentzioak eta elkarrizketa-estrategiak, formatu sinkronoan edo asinkronoan, komunikazioa hasi, mantendu eta amaitzeko, hitza hartu eta lagatzeko, argibideak eta azalpenak eskatu eta emateko, berriro formulatu, alderatu eta kontrastatzeko, laburtzeko, kolaborazioan aritzeko, eztabaidatzeko eta abar.*
Informazioa bilatu, hautatu eta kudeatzeko oinarritzko estrategiak eta baliabide analogiko eta digitalak.*
Jabetza intelektualarekiko eta egile-eskubideekiko errespetua eta kontsultatutako iturrien eta erabilitako edukien baliagarritasuna, kalitatea, gaurkotasuna eta fidagarritasuna ebaluatzeke estrategiak.*
Ulermen, produkzio eta koproduktzioarako —ahozkoa, idatzizkoa eta multimodala— erabili ohi diren tresna analogikoak eta digitalak; eta hezkuntzaren arloko interakzio, kooperazio eta kolaborazioeko plataformak birtualak (ikasgela birtualak, bideo-konferentziak, kolaborazioeko tresna digitalak...), atzerriko hizkuntzako hiztunekin edo ikasleekin ikasteko, komunikatzeko eta proiektuak garatzeko.*

2023ko uztailaren 31, astelehena

Hirugarren eta laugarren mailak
B. Eleaniztasuna eta ikaskuntzari buruzko gogoeta.
Autokonfiantza eta ekimena. Errorea, ikaskuntza-prozesuaren parte gisa.*
Komunikazio-behar jakin bati gero eta arintasun, egokitzapen eta zuzentasun handiagoz eta eraginkortasunez erantzuteko estrategiak eta teknikak, atzerriko hizkuntzako eta norberaren hizkuntza-errepertorioko gainerako hizkuntzetako konpetentzia-mailaren ondoriozko mugen gainetik.*
Hizkuntza-unitateak (lexikoa, morfosintaxia, soinu-patroiak, eta abar) identifikatu, antolatu, atxiki, berreskuratu eta sormenez baliatzeko erabili ohi diren estrategiak, norberaren hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzen eta barietateen konparaziotik abiatuta.*
Ikasteko baliabideak eta hizkuntza-unitateak (lexikoa, morfosintaxia, soinu-patroiak, eta abar) identifikatu, antolatu, atxiki, berreskuratu eta sormenez baliatzeko erabili ohi diren estrategiak, norberaren hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzen eta barietateen konparaziotik abiatuta.*
Autoebaluazio, koebaluazio eta autokonponketarako erabili ohi diren estrategia eta tresna analogikoak eta digitalak, indibidualak eta kooperatiboak, baita atzerriko hizkuntza ikasteko aurrerapenak eta zailtasunak erregistratzekoak ere. Hizkuntzen Portfolio Europarra (HPE).*
Komunikazioari, hizkuntzari, ikaskuntzari eta komunikazio- eta ikaskuntza-tresnei (metahizkuntzari) buruzko ideiak trukatzeko erabili ohi diren lexiko eta esamolde espezifikoak.*
Hizkuntzen arteko konparaziorako estrategiak, atzerriko hizkuntzaren eta beste hizkuntza batzuen elementuetatik abiatuta: jatorria eta ahaidetasunak.*
Estrategia kooperatibo errazak eta konplexuak, eta talde-lanean esleitutako banako erantzukizunak bere gain hartzeko estrategiak, ingurune analogiko eta digitaletan. Gatazken kudeaketa.*
C. Kulturartekotasuna.
Atzerriko hizkuntza, pertsonen arteko eta nazioarteko komunikazio-bide, informazio-iturri eta parte-hartze sozialerako eta norberaren aberastasunerako tresna gisa.*
Atzerriko hizkuntzako hitzuneekin edo ikasleekin, zenbait bitarteko bidez, komunikazio-trukeak egiteko interesa eta ekimena, betiere ahoskera, erritmo eta intonazio egokiez, erabili ohi diren ortografia-konbentzioak errespetatuz eta testuen aurkezpena zainduz.
Atzerriko hizkuntzaren berezko kultura-patroiak, erabili ohi direnak.*
Erabili ohi diren eguneroko bizitzari, bizi-baldintzei eta pertsonen arteko harremanei buruzko alderdi soziokulturalak eta soziolinguistikoak, generoaren analisitik; erabili ohi diren gizarte-konbentzioak; hitzik gabeko hizkuntza, hizkuntza-kortesia eta netiketa; atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako berezko lurralde-banaketa, kultura, arauak, jarrerak, ohiturak eta balioak.*
Erabili ohi diren estrategiak, hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna ulertzeko eta estimatzeko, balio ekosozialak eta demokratikoak kontuan hartuta.*
Hitzezko eta hitzik gabeko hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak hautemateko eta horien aurrean jarduteko erabili ohi diren estrategiak.*
Literatura-testuaren eta irakurketaren balorazioa, gozamen-iturri gisa, adierazpen artistiko eta kulturaletara hurbiltzeko eta hizkuntza eta norbera aberasteko.
Literatura-testuak dramatizatzeke, birsortzeke eta errezeitatzeko estrategia errazak.
Atzerriko hizkuntza munduan eta Euskal Herrian, eta honek euskararen duen eragina.
Hizkuntzen egoera Europan. Hizkuntza ofizialak, ez-ofizialak, nagusiak eta mendean daudenak. Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Karta.
Euskal diasporak atzerriko hizkuntzaren eta euskararen arteko kontaktuan sortutako hizkuntza-erregistro berriak.